



EDIKTUA

JAKINARAZPEN EDIKTUAK

Ezin izan da jakinarazpenik egin tributudunari edo haren ordezkariari, eta abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legeko 99.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik ezin bada jakinarazpenik egin, eta espedientean jaso badira egindako jakinarazpen saiakerak, artikuluko horrekin bat, ediktu honen bidez zitatzen dira, bai tributudunak bai haien ordezkariak, jakinarazpena jasotzera ager daitezten, espedientean dauden prozeduretatik eratorritako administrazio-ekintzen berri izateko. Agerraldia hamabost egun naturaleko epean egingen da, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Agerraldia goizeko hamarretatik arratsaldeko ordu biak eta erdietara egin beharko da Etxarri Aranazko udaletxean, Kale Nagusiko 10. zenbakian. Epe hori iragaten bada bulegora agertu gabe, jakinarazpena egintzat hartuko da, legezko ondorio guztietarako, agertzeko ezarritako epea bukatu eta biharamunean.

Oharrak:

Ebazpen honen aurka, ondoko errekurtsio hauetariko edozein aurkez dezakezu:

- a) Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetez, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

Premiamendu-prozedura soilik etengo da, nahiz eta errekurtsioa jarri, Nafarroako Foru Komunitatearen dirubilketari buruzko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritako xedapen eta baldintzen kasuan.

Etxarri Aranatz, 2013ko abenduaren 30an . –Alkate ordea, Eneka Maiz Ulyar.



ERANSKINA

Jakinarazten den egintza: Zergak kudeatzeko lanen hasierari buruzko jakinarazpena, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren arloan.

Espte: 84000007
Zergaduna: Pavimentos Olaeder, S.A.
IFK: A31013584
Helbidea: CR Vitoria, s/n 31820 Etxarri Aranatz (Navarra)

Jakinarazten den egintza: Datuen errekerimendua Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari lotutako datuak egiaztatzekeko prozeduraren barnean.

Espte: 84001017
Zergaduna: Mikel Aldasoro Martinez de Ilarduya
IFZ: 44629566K
Helbidea: Aritzeta 13 31820 Etxarri Aranatz (Navarra)

Espte: 84000679
Zergaduna: Satenhor, S.L.
IFK: B31775232
Helbidea: PG Zumurdiñeta s/n 31820 Etxarri Aranatz (Navarra)

Espte: : 84000723
Zergaduna: Satenhor, S.L.
IFK: B31775232
Helbidea: PG Zumurdiñeta s/n 31820 Etxarri Aranatz (Navarra)

Espte: 84000724
Zergaduna: Satenhor, S.L.
IFK: B31775232
Helbidea: PG Zumurdiñeta s/n 31820 Etxarri Aranatz (Navarra)